Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Uxue Alberdi Estibaritz

Elgoibar, Gipuzkoa (1984)



Aurkibidea

Biografia



Elgoibarren jaioa, Getarian bizi da; ama elgoibartarra du eta aita getariarra. Bertsolari eta idazle ezaguna da. Kazetaritza ikasi zuen, eta gaztetxotatik hasi zen idazten zein bertsotan. Makina bat plaza egin ditu, eta hainbat liburu eman ditu argitara, helduentzat nahiz umeentzat; Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eskuratu zuen 2016. urtean. Feminista da, eta generoarekin lotutako gaiak asko landu ditu. Bi elkarrizketa egin genizkion: bata, etxean erditzeari buruzkoa, eta bestea literaturari, bertsolaritzari eta generoari buruz.

Zintak

EGB-100

- **Proiektua**: Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Garmendia, Mirari
- **Data**: 2018-12-14
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

EGB-101

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia - Garmendia, Mirari
- **Data**: 2018-12-14
- **Iraupena**: 76 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Etxean erditzearen ideia

- **Erref**: EGB-100/002
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:01:04. **Bukatu**: 00:02:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Elgoibartarra da bera, baina Getarian bizi da. Hilerokoa joan egin zitzaion denbora batean, eta bere buruarekin eta gorputzarekin konektatzeko aukera eta interesa eman zion honek. Terapeuta etxean erditutakoa zen, eta gai honetara hurbiltzen joan zen Uxue.

2. Etxean erditzeko erabakia

- **Erref**: EGB-100/003
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:02:56. **Bukatu**: 00:06:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
26 urterekin haurdun gelditu zen Uxue, eta emaginekin hartu-emanak izandakoan, etxean erditzea erabaki zuen bikoteak, etxean erditzeak erosoago sentiarazten baitzituen. Prozesuan lagunduko zuten emaginak ezagutzeak segurtasuna eman zien biei.

3. Aita etxean erditzeaz poztu

- **Erref**: EGB-100/005
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:06:44. **Bukatu**: 00:08:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Haurdunaldia amaitzear zegoela, Uxuek gurasoei etxean erditzeko erabakiaren berri eman zien, eta primerako harrera izan zuen. Bestetik, etxean erditzeko erabakia ez zuten asko zabaldu, kritiketatik babesteko asmoz.

4. Erditze ona kontatzea amatasuna idealizatzea ote?

- **Erref**: EGB-100/006
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:08:16. **Bukatu**: 00:10:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Izandako erditze onen inguruan hitz egitea harrokeriatzat du gizarteak, horregatik, oso gutxitan kontatu izan du Uxuek bere esperientzia.

5. Lehen erditzea

- **Erref**: EGB-100/007
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:10:49. **Bukatu**: 00:14:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Erditzen lagunduko zuten emaginak ezagutzeak segurtasuna eman zion Uxueri. Eremu ezagun batean erditzea eta konpainia aukeratzea, lagungarria izan ziren oso.

6. "Mina neukan, baina ez neukan beldurrik"

- **Erref**: EGB-100/008
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:14:01. **Bukatu**: 00:15:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Erditze prozesuaren une batean, mina izugarria bazuen ere, oso seguru sentitzen zen Uxue, ez zuen beldurrik pasa.

7. Bigarren erditzea I

- **Erref**: EGB-100/009
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:15:18. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Bigarren erditzea lehenengoa baino azkarragoa izan zen. Bigarren honetan, Lur, lagun bat eta bi emagin egon ziren Uxue eta Eñautez gain. Min handiena zuen momentuan, aromaterapia erabili zuen emagin batek, eta horri esker, ez da sufritutako minaz gogoratzen, baina bai unearen usainaz.

8. Bigarren erditzea II

- **Erref**: EGB-100/010
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Baineran erditu zuen bigarren haurra, eta orduerdiko kontua izan zen.

9. Kopiatuz, ikasi

- **Erref**: EGB-101/002
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:00:37. **Bukatu**: 00:04:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Ipuinak sortzeko modurik onena kopiatzea da, gustuko ipuin bat aukeratu eta estrategiei erreparatzea.

10. Irakasteko lehenengo ikasi

- **Erref**: EGB-101/004
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Irakurzaletasuna bultzatzeko irakaslea ere irakurzalea izatea funtsezkoa da Uxuerentzat. Literatura ona da literaturzale bihurtzeko gakoa.

11. Entusiasmotik dator plazera

- **Erref**: EGB-101/005
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Zaila den arren, irakasleak entusiasmoa jarri behar du beti, batez ere literaturan. Gaur egun badirudi literaturak erraza izan behar duela.

12. Nola kontatu ipuin bat?

- **Erref**: EGB-101/007
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:09:13. **Bukatu**: 00:10:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Ipuin-kontalariak ipuina ulertzea da funtsezkoena, gogoa eta gustuko ipuina izatea transmititu egiten baitira. Adierazkortasuna ere gakoa da.

13. Bozgora irakurtzea gehiago landu behar da

- **Erref**: EGB-101/008
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:10:29. **Bukatu**: 00:12:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Gutxi lantzen da bozgorako irakurketa. Bozgora irakurtzen jakiteak badu ipuin-kontaketa on bat egiteko garrantzia.

14. Idazlea eta bertsolaria

- **Erref**: EGB-101/010
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:13:03. **Bukatu**: 00:15:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Bietan ikusten du Uxuek bere burua, maila berean. Sortzeak zoriontsu egiten du Uxue. Idaztean, egin behar duena egiten ari dela sentitzen du, misio bat balu bezala.

15. "Kantuak sendatzen gaitu"

- **Erref**: EGB-101/011
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:15:22. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Kantuak zoriontsu sentiarazten du. Bertsokideekin egotea eta bertsoak duen izaera sozialak etxetik ateratzen lagundu dio, baina baita etxeak hankak lurrean jartzen ere.

16. "Txapelketa bera patriarkala da"

- **Erref**: EGB-101/012
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Txapelketa bertso munduan bertsolari gisa balidatzeko modu bakarra izatearekin ez dago ados. Bertso-sistema eta txapelketa bera patriarkalak iruditzen zaizkio. Horregatik, txapelketetara ez aurkeztea erabaki zuen. Idatziz sortzeak hobe egiten dio.

17. "Plaza jende zaharragoarentzat prestatu behar dugu"

- **Erref**: EGB-101/013
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Adin batetik aurrera saioz saio ibiltzea ez da erraza, eta gutxi dira 60 urtetik aurrera martxa hori jarrai dezaketenak. Adineko emakumerik ez da ikusten plazan, ezta ama diren bertsolari asko ere.

18. Bertsolaritza oso gogorra da

- **Erref**: EGB-101/014
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:20:26. **Bukatu**: 00:22:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Ederra bezain gogorra da bertsolaritza Uxuerentzat, fisikoki eta mentalki indar handia eskatzen baitu.

19. Gizonek emakumeei toka

- **Erref**: EGB-101/016
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Aitak Uxueri hika hitz egiten zion haserretzen zenean, baina Uxuek ez du sekula noka ez tokarik hitz egin. Bestetik, mutil askok toka egiten diotela konturatu da.

20. Euskalduntasuna maskulinitatearekin loturik

- **Erref**: EGB-101/018
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:25:04. **Bukatu**: 00:26:34

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Euskaldun jatortasuna nahi gabe maskulinitareakin lotu izan da. Berueteko (Betelu dio, nahastuta) bertso saio batean gertatutakoa. Euskararentzat arnasgune, generoarentzat itogune.

21. Feminismoa umetatik ezagutu

- **Erref**: EGB-101/020
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:27:26. **Bukatu**: 00:29:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Txikitatik feminista izatea normala izan da Uxuerentzat. Ama eta izeba eredu izan ditu beti. Espazio publikoan emakume kirolari gutxi zeudela aipatu izan dute sarritan.

22. Bertsolaria baino, neska bat ikusten zuten

- **Erref**: EGB-101/021
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:29:29. **Bukatu**: 00:30:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Plazara bertsotan egitera joan zenean konturatu zen gizonen eta emakumeen desberdintasunaz, izan ere, bertsolari bat baino, neska bat ikusten zuten.

23. Emakumea, idazlea

- **Erref**: EGB-101/022
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:30:56. **Bukatu**: 00:33:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Bertso munduan bezalaxe, literaturaren munduan ere generotik egin du bidea. Generoaren kontzientzia. Emakume izateagatik literatur munduan gertatutako batzuk.

24. Bertsolaritza eta generoa: mugak I

- **Erref**: EGB-101/023
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:33:59. **Bukatu**: 00:37:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakume bertsolarien esperientzia eta sentsazioak batzen dituen proiektu batean lanean ari da Uxue. 15 bertsolari elkalrrizketatu ditu, eta errepikatzen diren patroiak jaso (22 mugatze). Sufrimendu handia ikusi du eta autoestimu txikia. 22 mugetako batzuk aipatzen ditu pasarte honetan.

25. Bertsolaritza eta generoa: mugak II

- **Erref**: EGB-101/024
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:37:54. **Bukatu**: 00:40:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
15 emakume bertsolariren testigantzak jaso ditu Uxuek generoaren eta bertsolaritzaren inguruan, eta gehien errepikatzen diren mugetako batzuk aipatzen ditu pasarte honetan (guztira mugatze 22 jaso ditu): euskalkirik gabeko bertsolaria, umorerik egiten ez omen dakiena, gorputzetik haratago existitzen ez dena...

26. Plaza guztiek ez dute balio bera

- **Erref**: EGB-101/025
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:40:50. **Bukatu**: 00:42:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Plazaz plaza publikoaren iritzia ez da era berean baloratzen. Askotan, balorazio eta aprobazio hori maskulinoa da. Pisu handiagoa du gizonaren iritziak emakumearenak baino, eta askotan, emakumearena bilatu ere ez da egiten.

27. 'Femme fatale' bertsolaritzan

- **Erref**: EGB-101/027
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:43:38. **Bukatu**: 00:47:23

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
'Femme fatale' gizonei begirako estrategia. Sexu askatasuna bizitzea ausardiari lotu zaio denboran zehar, emakumeen plazerari gutxi erreparatu zaio. Emakumearen sexualizazioa bertsolaritzan. Emakume bertsolarien aukerak plazan, gaien errepikakortasuna, topikoak.

28. Gizonari bertsotan ez erantzutea ihes egitea ote?

- **Erref**: EGB-101/028
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:47:23. **Bukatu**: 00:49:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
2009ko Euskal Herriko Txapelketan gertatutakoa. Estiballesekin koplatan.

29. Desiratutik desiratzailera

- **Erref**: EGB-101/029
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:49:49. **Bukatu**: 00:51:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Orokorrean bertsotarako gaietan emakumea izaten da desiratua eta gizona desiratzailea. Erotikatik ez kantatzeko estrategietako bat izan du Uxuek desiratzailearen papera hartzea.

30. Kontestu feministetan saio gehiago

- **Erref**: EGB-101/031
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:52:15. **Bukatu**: 00:55:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Zakilari buruzko mila txiste, aluari buruzkorik ez. Kode faltak. Diskurtsoa botatzeko gaiak.

31. Zer eman diote emakumeek bertsolaritzari?

- **Erref**: EGB-101/033
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:56:02. **Bukatu**: 00:58:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeek gehiago hitz egiten dute sexuaz gizonek baino. Sexualitateak tabua izaten jarraitzen du, baina batez ere gizonen artean.

32. Gizonen sexualitate eredua

- **Erref**: EGB-101/035
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:59:07. **Bukatu**: 01:01:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gizonen sexualitatea dago edonon, baina sexualitatea egoteak ez du plazera dagoenik esan nahi, gizonen sexualitate eredua dela medio. Autoerrepresentazio beharra, eta modu sexistan irakurtzeko arriskua.

33. Adi bizitzea du saioetarako prestaketa

- **Erref**: EGB-101/037
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:01:42. **Bukatu**: 01:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Ahalduntze bertso eskolen onuretako bat elkar ezagutzea izan da. Adi bizitzea da bertso saioetarako Uxueren prestatzeko modua.

34. "Eskubide eta genero kontuetan ez dugu beti hoberantz egiten"

- **Erref**: EGB-101/039
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 01:03:38. **Bukatu**: 01:06:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Azken 30-40 urtetan genero ikuspegirako mugarri izan direnak bildu eta interpretatu dituzte. 80ko hamarkadan mugimendu feminista bazen ere, bertsolaritza ez zen barruan kokatzen. Era berean, bertsotan zebiltzan emakume askok ez zuten euren burua feministatzat.

35. Generoaren ikuspegitik egindakoak

- **Erref**: EGB-101/040
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 01:06:56. **Bukatu**: 01:10:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Genero batzordea, bertso eskolak, feminismo eta bertsolaritza lotzen... Erreferente bakarrik ez. Emakume bertsolarien sarea.

36. Erreferente feministak

- **Erref**: EGB-101/042
- **Iraupena**: 0:04:53. **Hasi**: 01:11:06. **Bukatu**: 01:15:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakume sortzaileei begira urteak daramatza Uxuek. Bertsolaritza mailan Maialen Lujanbio azpimarratzen du. Feminista izateko modu desberdinak ikusten ditu kide bertsolarietan. Literaturan Eider Rodriguez, Danele Sarriugarte. Kattalin Miner, Mari Luz Esteban, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com